Gipuzkoako Foru Aldundia Ogasun eta Finantza Departamentua Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Hacienda y Finanzas	**HILDAKOEN ZERGA ITZULKETEN ESKAERA (PFEZa ETA BESTE BATZUK)** **SOLICITUD DEVOLUCIONES TRIBUTARIAS DE PERSONAS FALLECIDAS (IRPF Y OTRAS)** www.gipuzkoa.eus/ogasuna/hildakoenerrenta www.gipuzkoa.eus/ogasuna/rentafallecidos	**109H** **JARRAIBIDEAK**

109H EREDUAREN AURKEZPENA

Hildako pertsonen alde sortzen diren zerga itzulketak eskatzeko erabil daiteke eredu hau, honako kasuotan:

- PFEZaren banakako aitorpen bat aurkeztu eta haren emaitza itzultzekoa denean.
- Itzulketarako eskubidea beste arrazoi batzuengatik aitortu zaionean (PFEZarena ez den beste aitorpen bat aurkezteagatik, errekurtso baten ebazpenagatik, etab.).

AURKEZPEN BAKARRA: Hildako pertsona bati dagokion 109H eredua behin aurkeztu ondoren, eredu horrek hildako pertsona horren alde dauden oraingo zein etorkizuneko itzulketa guztietarako balioko du, eta itzulketak baldintza berberetan egingo dira beti. Hortaz, itzulketa bakoitzeko ez dago zertan aurkeztu 109H eredu bat, nahikoa da itzulketa guztietarako bat aurkeztea, salbu eta ereduan adierazitako datuek indarra galdu badute edo horiek aldatu nahi badira (kontu korrontearen aldaketa, jaraunsleen/oinordekoen heriotza).

Hildakoaren oinordekoek aurkeztu behar dute eredua (109H ereduaren ondorioetarako, oinordeko deituko diegu bai jaraunsleei bai zati alikuotaren legatudunei).

Herentzia banatugabeen kasuan edo testamentu ahalordea erabili gabe duten herentzien kasuan, ordezkariek aurkeztu behar dute eredua.

109H EREDUA AURKEZTEKO TOKIA, MODUA ETA EPEA.

Aurkezteko lekua eta modua:

Aurkezteko lekua eta modua desberdinak izango dira itzulketak PFEZarenak diren edo beste zerga batzuei dagozkien.

Itzulketa eskaera aurkezteko lekua eta modua, itzulketaren jatorria hildako pertsonaren errenta aitorpenean dagoenean (Errenta kanpaina).

1. Hildakoaren errenta aitorpena modalitate mekanizatuan aurkezten bada, 109H eredua aitorpen horrekin batera aurkez daiteke, errenta mekanizatuko bulegoetan.
2. Hildakoaren errenta aitorpena Internet bidez aurkezten bada, 109H eredua telematikoki aurkez daiteke, Zergabidea programaren bitartez, dela aitorpen horrekin batera, dela geroago.
3. Bi kasuetan (hildakoaren errenta aitorpena modalitate mekanizatuan aurkeztu edo Internet bidez aurkeztu), 109H eredua leku hauetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da:
    - Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren erregistro elektronikoan.
    - Ogasun eta Finantza Departamentuaren egoitza nagusian (paperean).
    - Ogasun eta Finantza Departamentuko Herritarren Arretarako bulego hauetan (paperean):

Donostia - Egoitza nagusia	Errotaburu pasealekua 2
Donostia - Erdialdea	Okendo 20
Azpeitia	Julian Elortza 3
Bergara	Toki Eder 5
Eibar	Bittor Sarasketa 7
Irun	Iparralde hiribidea 6
Tolosa	San Frantzisko 45

Itzulketa eskaera aurkezteko lekua eta modua, itzulketaren jatorria beste arrazoi batean dagoenean (PFEZarena ez den beste aitorpen bat, errekurtso baten ebazpena, etab.)

109H eredua telematikoki edo paperean aurkez daiteke, aurreko apartatuko 2. eta 3. puntuen arabera (itzulketa eskaera aurkezteko lekua eta modua, itzulketaren jatorria hildako pertsonaren PFEZaren aitorpenean dagoenean).

Aurkezteko epea: Aurkezteko epea desberdina da itzulketak zein jatorri duen:

- Itzulketaren jatorria PFEZaren edo beste zerga baten aitorpena bada, hildako pertsonaren aitorpena aurkezten den unean bertan aurkez daiteke 109H eredua.
- Itzulketak beste arrazoi batean badu jatorria (errekurtso baten ebazpenean, kasu), eskubidea aitortzen den unean aurkez daiteke 109H eredua.

Bi kasuetan, posible da 109H eredua geroago ere aurkeztea (4 urtera arte gehienez).

109H EREDUA BETETZEA.

1. atala.- Hildakoaren identifikazioa.

Hildakoari buruzko datuak jarri beharko dira, hura baita itzultzeko eskubidea duen errenta aitorpenaren titularra.

Halaber, itzultzeko eskatzen den PFEZaren autolikidazioaren urtea adierazi behar da.

2. atala.- Eskatzaileen identifikazioa eta sinadura.

109H Ereduan, honako hauek jaso beharko dira eskatzaile moduan:

- Oinordekoak (herederoak edo zati alikuotaren legatu hartzaileak); edoB05396247B05396247B05396247B05396247
- Herentzia banatugabearen ordezkariak edo testamentu ahalordea erabili gabe duen herentziaren ordezkariak.

Eskatzaileek izen-abizenez eta IFZz identifikatu beharko dute beren burua.

Eskaitzaileek kasu bakoitzari dagokion gakoa markatu beharko dute: «H» edo «R».

- Oinordeko (heredero edo zati alikuotaren legatu hartzaile) diren eskatzaileek «H» gakoa markatu behar dute.
- Banatu gabeko herentzia baten ordezkari edo testamentu ahalordea erabili gabe duen herentzia baten ordezkari diren eskatzaileek «R» gakoa markatuko dute.

Ereduan lerroak baino eskatzaile gehiago badaude, eskatzaile guztiak sartzeko behar adina ereduak aurkeztu beharko dira.

OHAR GARRANTZITSUA: 109H eredua eskatzaile GUZTIEK sinatu beharko dute. 109H ereduan ez badira agertzen eskatzaile guztien sinadurak, ez da tramitatuko 109H eredua sinadura agertzen ez zaien eskatzaileen itzulketa.

3. atala.- Eskatzaileen azalpena

3.1. Gipuzkoako lurralde historikoan oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga aurkeztea (670 eredua).

Atal honetan aukera bat bakarrik bete behar da, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga (670 eredua) Gipuzkoako lurralde historikoan aurkeztu den edo ez kontuan hartuta.

- 670 eredua Gipuzkoan aurkeztu bada, ez da beharrezkoa izango herentziari buruzko dokumentazioa aurkeztea eta 3.2 atala betetzea. Dena den, litekeena da kontu korronteari buruzko informazioa aurkeztu behar izatea (irakurri 4.3 ataleko jarraibidea).
- 670 eredua EZ bada Gipuzkoan aurkeztu, 3.2 atala bete beharko da.

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga (670 eredua) Gipuzkoa ez den lurralde batean aurkeztu denean, Gipuzkoako lurralde historikoan aurkeztu gabe moduan bete beharko da.

3.2. Herentziari buruz aurkeztu beharreko dokumentazioa:

OHAR GARRANTZITSUA: Atal hau herentziari buruzko dokumentazioarekin bakarrik lotuta dago. Kontu korronteari buruzko banku dokumentaziorako, irakurri 4.3 ataleko jarraibidea.

OHAR GARRANTZITSUA: Dokumentazioa aurkeztu beharko da oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga (670 eredua) Gipuzkoako lurralde historikoan aurkeztu EZ denean bakarrik.

Atal honetan, hiru aukeretako bat bakarrik bete beharko da, aurkezten den dokumentazioaren arabera.

Kasu bakoitzaren arabera dokumentazio hau aurkeztuko da:

- Herentzia onartu edo banatzeko eskritura publikoa dagoenean:
  - Herentzia onartu edo banatzeko eskritura bakarrik aurkeztuko da.

- Herentzia onartu edo banatzeko eskritura publikorik ez dagoenean, baina testamendua edo oinordetza ituna dagoenean, bi agiri hauek aurkeztuko dira:
  - Testamendua edo oinordetza ituna, eta
  - Azken nahien ziurtagiria.

- Herentzia onartu edo banatzeko eskritura publikorik eta testamenturik edo oinordetza itunik ez dagoenean, hiru agiri hauek aurkeztu beharko dira:
  - Familia liburua (edo Erregistro Zibileko erregistro elektroniko indibidualaren ziurtagiria)
  - Heriotza ziurtagiria (edo Erregistro Zibileko erregistro elektroniko indibidualaren ziurtagiria), eta
  - Azken nahien ziurtagiria.

4. atala.- Itzulketa eskaera.

4.1. Itzulketarako kontu korronte bat edo hainbat.

Atal honetan, aukera bat bakarrik bete behar da:

- Kontu korronte bakar batean diru sarrera egitea: kasu horretan, 4.2 atala bete beharko da (ez da beharrezkoa izango atzealdeko ERANSKINA betetzea).
- Hainbat kontu korrontetan diru sarrera egitea: kasu horretan behar adina lerro bete beharko dira atzealdeko ERANSKINEAN (ez da beharrezkoa izango 4.2 apartatua betetzea).

4.2. Kontu korronte bakar batean itzultzea.

Atal hau bete beharko da itzulketaren diru sarrera kontu korronte bakar batean egiteko eskatzen denean eta ez badira aurreko bi ataletan adierazitako kasuak (TST laukia eta CCF laukia).

Informazio hau bete beharko da:

TST laukia (oinordeko guztiak kontu korrontearen titularrak dira).

Lauki hau honako kasu hauetan markatu beharko da:

- Eskatzaile guztiek kontu korronte bakarra dute, zeinaren titularrak DENAK diren.
- Eskatzaile bakarra dago, zeina kontu korrontearen oinordeko eta titular bakarra den.

OHAR GARRANTZITSUA: lauki hau betez gero, ez dira bete behar kontu korrontearen titularraren IFZri, izenari eta abizenei buruzko laukiak.

CCF laukia (hildakoaren kontu korrontea).

Lauki hau markatu beharko da itzulketaren sarrera hildakoaren kontu korronte batean egiteko eskatzen denean.

OHAR GARRANTZITSUA: Horretarako, beharrezkoa izango da hildakoaren kontu korrontea EZ egotea ezeztatuta edo blokeatuta. Izan ere, bestela, ezin izango da diru sarrerarik egin bertan.

OHAR GARRANTZITSUA: lauki hau betez gero, ez dira bete behar kontu korrontearen titularraren IFZri, izenari eta abizenei buruzko laukiak.

Kontu korrontearen titularraren IFZ, izena eta abizenak.

Lauki hau bete beharko da itzulketa kontu korronte bakar batean egiteko eskatzen denean.

Hori egin beharko da, adibidez, oinordeko guztiek itzulketa beraietako bakar batena den kontu korronte batean egiteko eskatzen denean. Kasu horretan, kontu korrontearen titularraren IFZ, izena eta abizenak adierazi beharko dira.

Eskatzailea herentzia banatugarearen edo testamentua emateko ahalordea erabili gabe duen herentziaren ordezkaria denean, lauki hauek bete beharko dira baldin eta itzulketa herentziaren titulartasuna duen kontu korronte batean egiteko eskatzen bada. Kasu horietan, herentziaren IFZ eta izendapena adierazi beharko dira.

IBAN kodea

Lauki hau beti bete beharko da.

«D» laukia (Dokumentazioa).

Kontu korronteari buruzko dokumentazioa aurkezten bada, zirkunstantzia hori aurkeztu beharko da, «D» laukia markatuta (Dokumentazioa). **Irakurri 4.3 atala (kontu korronteen titulartasunari buruzko dokumentazioa).**

4.3. Kontu korronteei buruzko dokumentazioa.

Kontu korronte berri bat denean (uneko urtean irekia), banku kontuaren titulartasunaren frogagiri bat aurkeztu beharko da, alegia, bi hauetako bat, besteak beste:

- Kontu korrontearen zenbakia (IBANa) jasotzen duen libretaren fotokopia, eta kontuaren titularrak.
- Kontu korrontearen zenbakia (IBANa) jasotzen duen banku helbideratzeko ordainagiria, eta kontuaren titularrak.
- Kontu korrontearen zenbakia (IBANa) jasotzen duen finantza entitatearen inprimakia edo ziurtagiria, eta kontuaren titularrak.

Nolanahi ere, frogagiria aurkeztu izana jasota utzi beharko da, erantsitako dokumentazioari lotutako kontu korrontearen lerroan «D» laukia markatuta, 4.2 atalean izan edo eranskinean izan.

5. atala. Harremanetarako pertsona.

Harremanetarako pertsonaren izena eta abizena jaso behako da, hala badagokio, bai eta telefono zenbakia eta/edo helbidea elektronikoa ere. Telefono eta/edo posta elektroniko hori itzulketa tramitatzeko bakarrik erabiliko da, aurkeztutako **109H ereduan** gerta daitekeen edozein gorabehera konpontzeko.

ERANSKINA. Hainbat kontu korrontetan itzultzea.

ERANSKIN hau bete beharko da itzulketa kontu korronte batean baino gehiagotan itzultzea nahi denean bakarrik. Bereziki, kasu hauetan aurkeztuko da:

- Oinordekoek beraietako bakoitzari dagokion itzulketaren zatia beste kontu korronte batean sartzeko eskatzen denean.
- Oinordekoetako batzuek (eta ez denek) beren itzulketaren zatia kontu korronte berean egiteko eskatzen dutenean eta, aldi berean, beste oinordeko batek edo batzuek beste kontu korronte batean sartzeko eskatzen dutenean.

Kasu horietan guztietan, eskatzaile bakoitzak bere itzulketaren zatia sartzea nahi duen kontu korrontea beteko da, bai eta kontu korronte horren titularra ere. Horretarako, oinordeko adina lerro bete beharko dira eranskinean. Eranskinean agertzen diren baino lerro gehiago beharrezkoak badira, oinordeko guztiak sartzeko behar adina eranskin aurkeztu beharko dira.

Lerro bakoitzeko, informazio hau bete beharko da:

Eskatzailearen IFZ.

Itzulketa eskatzen duen pertsonaren IFZ bete beharko da. Beraz, 2. atalean jasotako eskatzaile adina lerro bete beharko dira. Eranskinean agertzen diren baino lerro gehiago beharrezkoak badira, eskatzaile guztiak sartzeko behar adina eranskin aurkeztu beharko dira.

MT laukia

Aldi berean eskatzailea adierazitako kontu korrontearen titularra denean, zirkunstantzia hori adierazi beharko da, MT laukia beteta (titular bera denean); kasu horretan, ez da beharrezkoa izango kontu korrontearen titularraren IFZri, izenari eta abizenari buruzko laukiak betetzea. Beharrezkoa izango da, ordea, IBAN kodea betetzea.

Kontu korrontearen titularraren IFZ, izena eta abizenak.

Eskatzailea eta kontu korrontearen titularra desberdinak direnean, kontu korrontearen titularraren IFZ, izena eta abizenak jaso beharko dira.

Kontu korronte beraren hainbat titular daudenean, nahikoa izango da beraietako baten IFZ, izena eta abizena jasotzea.

IBAN kodea.

Lauki hau beti bete beharko da.

«D» laukia (Dokumentazioa).

Kontu korronteei buruzko dokumentazioa aurkezten bada, zirkunstantzia hori jasota utzi beharko da, «D» laukia markatuta (Dokumentazioa). **Irakurri 4.3 atala (kontu korronteen titulartasunari buruzko dokumentazioa).**